



BIDE-GARBIKETA ETA HONDAKINEN BILKETA ETA GARRAIOA – INGURUMEN-IRIZPIDE SINPLIFIKATUAK

Prozedura irekiz eta lehiaketa bidezko esleipenez kontratatzeko ingurumen-irizpideak





| Oinarrizko maila | Maila aurreratua |
|---|---|
| <p>KONTRATUAREN XEDEA:</p> <p>Kontratu honen xedea da gaikako bilketa eta hondakinak garraiatzeko eta bideak garbitzeko zerbitzuak emateko gutxieneko baldintzak zehaztea. Ingurumena eta lan-osasuna gehiago zaintzen dituzten metodo, jardunbide eta produktuekin gauzatuko da zerbitzu hau, eta, besteak beste, hauek hartuko ditu barnean: hondakinaren kudeaketa egokia eta ingurumenaren aldetik jasangarriak diren makinaren erabilera.</p> | <p>KONTRATUAREN XEDEA:</p> <p>Kontratu honen xedea da gaikako bilketa eta hondakinak garraiatzeko eta bideak garbitzeko zerbitzuak emateko gutxieneko baldintzak zehaztea. Ingurumena eta lan-osasuna gehiago zaintzen dituzten metodo, jardunbide eta produktuekin gauzatuko da zerbitzu hau, eta, besteak beste, hauek hartuko ditu barnean: hondakinaren kudeaketa egokia eta ingurumenaren aldetik jasangarriak diren makinaren erabilera.</p> |
| <p>KAUDIMEN TEKNIKO (nahitaez betetzekoa):</p> | <p>KAUDIMEN TEKNIKO</p> <ol style="list-style-type: none"> Lan-osasunari, segurtasun-estandarrei, garbiketa-metodoei eta zerbitzuari lotutako ingurumen-alderdiei buruzko prestakuntza duen koordinatzaile bat edukitzea. <p><i>Egiaztapena: Persona horren CV eranstea.</i></p> <ol style="list-style-type: none"> Kontratua gauzatzean ingurumena kudeatzeko jardunbide egokiak sistematikoki aplikatzen direla bermatzea (garbiketa-zerbitzuan ingurumen-kudeaketako sistema baten bidez ziurtatzeko modukoak; EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo haien |

| | |
|--|--|
| | <p>baliokideren bat), edo</p> <p>laneko osasuna babesteko eta ingurumena zaintzeko prozedurak eta lanerako jarraibideak izatea.</p> <p><i>Egiaztapena: Lehenengo kasuan, enpresak ingurumen-kudeaketako sistemaren ziurtagiria erantsi behar du. Bigarren kasuan, aipatutako prozedurak B gutun-azalean erantsi behar ditu eskaintzaileak, bere gaitasuna ebaluatzeko.</i></p> |
| <p>ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):</p> | <p>ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak):</p> |
| <p>Garbiketako produktuak</p> <p>1. Lizitatzailleak zerbitzua emateko erabil ditzakeen produktu guztien zerrenda aurkeztu behar du, eta produktu bakoitzaren egitekoa edo aplikatzeko gainazala, erabiltzeko dosifikazioa eta segurtasun-fitxa adierazi behar ditu. Edukiera handiko ontziak izango dira edo produktu kontzentratuak erabiliko dira.</p> <p><i>Egiaztapena: Abal hauetako bat eman beharko da: 2 eta 4 (ikusi egiaztapen-dokumentazioa)</i></p> | <p>Garbiketako produktuak</p> <p>1. Lizitatzailleak zerbitzua emateko erabil ditzakeen produktu guztien zerrenda aurkeztu behar du, eta produktu bakoitzaren egitekoa edo aplikatzeko gainazala, erabiltzeko dosifikazioa eta segurtasun-fitxa adierazi behar ditu. Edukiera handiko ontziak izango dira edo produktu kontzentratuak erabiliko dira.</p> <p><i>Egiaztapena: Abal hauetako bat eman beharko da: 2 eta 4 (ikusi egiaztapen-dokumentazioa)</i></p> <p>2. Usainak eta orbanak kentzeko erabiltzen diren garbiketa-produktuek bete behar dituzte I motako ekoetiketaren batean (Europako Etiketa Ekologikoa, Beltxarga Zuria edo baliokideren bat) jasotako baldintzak, produktuaren formulazioak dituen konposatu kimikoei dagokionez.</p> <p><i>Egiaztapena: Abal hauetako bat eman beharko da: 5 eta 6 (ikusi egiaztapen-dokumentazioa)</i></p> |

| | |
|--|--|
| | <p>Uraren kudeaketa</p> <p>3. Bideak garbitzeko zerbitzurako ura aurrezteko sistemak eduki behar dira, batez ere galtzadak urez garbitzeko eta presiopeko ureztatze-lanetarako.</p> <p><i>Egiaztapena: Abal hau eman beharko da: 2 (ikusi egiaztapen-dokumentazioa).</i></p> |
| | <p>Hondakinak biltzeko eta garraiatzeko irizpide espezifikoak</p> <p>4. Baldintza-orrietan jasotzen diren baldintzak betetzeko egokien jotzen dituen ibilbideak erabaki, proposatu eta eguneratu behar ditu enpresa esleipendunak. Ibilbide bakoitzarekin hari dagokion kilometro-kopurua adierazi behar da. Zerbitzua optimizatzeko egokitzat jotzen dituen hobekuntzak proposatu behar ditu enpresa esleipendunak, hala nola edukiontzi berriak jartzea, lehendik daudenak lekuz aldatzea, bilketa-maiztasunak aldatzea, ordutegiak aldatzea eta abar.</p> <p><i>Egiaztapena: Abal hau eman beharko da: 2 (ikusi egiaztapen-dokumentazioa).</i></p> |
| | <p>Bideak garbitzeko irizpide espezifikoak</p> <p>5. Enpresa esleipendunak bideak garbitzeko plan bat aurkeztu behar du, eta alderdi hauek zehaztu behar ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Makinen ibilbideak, haien urteko kilometro-kopurua murrizteko. • Auzo/Gune bakoitzaren garbiketa-beharretarako egokitzapena, erabileren eta urteko garaien arabera. <p>Garbiketa-plan horretan, proposatutako zer jarduerarekin lor daitekeen ingurumen-hobekuntza bat justifikatu behar da.</p> |

| | |
|---|--|
| | <p><i>Egiaztapena: Abal hau eman beharko da: 2 (ikusi egiaztapen-dokumentazioa).</i></p> |
| GAUZATZE-IRIZPIDEAK (nahitaez betetzekoak): | GAUZATZE-IRIZPIDEAK (nahitaez betetzekoak): |
| <ol style="list-style-type: none"> 1. Kontrola eta jarraipena. Lanak egiten diren bitartean, enpresa esleipendunak kontrol- eta jarraipen-lanak egin behar ditu ziurtatzeko ingurumen-aldagaia eta lana behar bezala garatzen ari direla. 2. Txostenak. Hilero txostenak bidali behar zaizkio kontratuaren udal-arduradunari, lana justifikatzeko. Aldagai batzuk adierazi behar dira txostenean; esaterako, uraren benetako kontsumoaren neurketa eta erregaiak. Horrez gain, urtero beste txosten bat egingo da hilero neurtutako aldagaien kontsumoak murrizteko proposamenekin. 3. Erregaiak. Enpresak erregai edo sistema alternatibo bidez (bioerregaiak, hidrogenoa...) higiaraz daitezkeen ibilgailuak baldin baditu, sistema alternatibo horiek ahalik eta gehiena erabiliko ditu. Udalerriko arduradunari jakinarazi behar zaio makina edo ibilgailu horien erabileraren portzentajea. 4. Langileek trebatuak egon behar dute zerbitzua ematen duten bitartean behar bezala jarduteko; adibidez, ahalik eta zarata gutxien egiteko eta eraginkortasunez gidatzeko.. Horretarako, dagokion trebakuntza jaso izanaren egiaztapiriak aurkeztu behar dira. 5. [Hondakinak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzurako] Edukiontzia garbitzean, ziurtatu behar da ura behar bezala kudeatzen dela eta produktu kimikoak egoki erabiltzen direla. | <ol style="list-style-type: none"> 1. Kontrola eta jarraipena. Lanak egiten diren bitartean, enpresa esleipendunak kontrol- eta jarraipen-lanak egin behar ditu ziurtatzeko ingurumen-aldagaia eta lana behar bezala garatzen ari direla. 2. Txostenak. Hilero txostenak bidali behar zaizkio kontratuaren udal-arduradunari, lana justifikatzeko. Aldagai batzuk adierazi behar dira txostenean; esaterako, uraren benetako kontsumoaren neurketa eta erregaiak. Horrez gain, urtero beste txosten bat egingo da hilero neurtutako aldagaien kontsumoak murrizteko proposamenekin. 3. Erregaiak. Enpresak erregai edo sistema alternatibo bidez (bioerregaiak, hidrogenoa...) higiaraz daitezkeen ibilgailuak baldin baditu, sistema alternatibo horiek ahalik eta gehiena erabiliko ditu. Udalerriko arduradunari jakinarazi behar zaio makina edo ibilgailu horien erabileraren portzentajea. 4. Langileek trebatuak egon behar dute zerbitzua ematen duten bitartean behar bezala jarduteko; adibidez, ahalik eta zarata gutxien egiteko eta eraginkortasunez gidatzeko.. Horretarako, dagokion trebakuntza jaso izanaren egiaztapiriak aurkeztu behar dira. <p>[Hondakinak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzurako] Edukiontzia garbitzean, ziurtatu behar da ura behar bezala kudeatzen dela eta produktu kimikoak modu egokian</p> |

| | |
|---|---|
| | erabiltzen direla. |
| ESLEIPEN-IRIZPIDEAK: | ESLEIPEN-IRIZPIDEAK: |
| <p>Garbiketa-produktuak</p> <p>1. Baloratuko da usainak eta orbanak deuseztatzeko erabiltzen diren garbiketa-produktuek I motako ekoetiketaren batean (hala nola Beltxarga Zuria, Europako Etiketa Ekologikoa edo baliokideren bat) jasotako baldintzak betetzea, produktuaren formulazioan konposatu kimikoak egoteari dagokionez. (2 puntu)</p> <p><i>Egiaztapena:</i> Abal hauetako bat eman beharko da: 5 eta 6 (ikusi egiaztapen-dokumentazioa)</p> | <p>Ibilgailuen emisioak</p> <p>1. Zerbitzuak emateko flotako ibilgailuetatik zenbatek (portzentajea) betetzen duten EURO VI araua baloratuko da. (2 puntu)</p> <p>Formula:</p> $BEP = \frac{BE \times 2}{EO}$ <p>Hizkiek hau adierazten dute: EO: eskaintza onena. BE: baloratu nahi den eskaintza. BEP: baloratutako eskaintzari ematen zaion puntuazioa.</p> <p><i>Egiaztapena:</i> Ibilgailu guztien berme hau aurkeztu behar da: 3 (ikusi egiaztapen-dokumentazioa).</p> |
| <p>Uraren kudeaketa</p> <p>2. Baloratuko da bideak garbitzeko makinek ura aurrezteko sistemak edukitzea, batez ere galtzadak urez garbitzeko eta presiopeko ureztatze-lanetarako. (2 puntu)</p> <p><i>Egiaztapena:</i> Abal hau eman beharko da: 2 (ikusi egiaztapen-dokumentazioa).</p> | <p>Makinetako hobekuntzak</p> <p>2. Baloratuko da zarata eta ur- eta energia-kontsumoa murriztuko duten makina batzuk proposatzea zerbitzua emateko, betiere frogatzen bada ohiko makina edo prozedurek baino gutxiago kontsumitzen dutela. (2 puntu)</p> <p>Zehazki, alderdi hauek baloratuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> Zarata-maila baxuagoak. |

| | | |
|--|---|---|
| | <ul style="list-style-type: none"> • Ekipoek ur-kontsumo (litro/m²-tan) eta energia-kontsumo (kWh/m²-tan) txikiagoa izatea. <p>Balorazioa egiteko, lizitatzailerak zerrenda bat aurkeztu behar du, non agertuko baitira zerbitzua emateko erabiliko dituen makinak, haien potentzia, zarata-mailak eta ur- eta energia-kontsumoa, eta behar diren egiaztagiriak erantsi behar dizkio zerrendari.</p> <p><i>Egiaztapena: Proposamenean jasotako makina guztien berme hauetako bat aurkeztu behar da: 2 eta 3 (ikusi egiaztapen-dokumentazioa)</i></p> | |
| DOKUMENTAZIOA/EGIAZTAPENA (*) | | |
| 1. Enpresaren deklarazioa | 5. <i>Europar Batasunaren etiketa ekologikoa</i> |  |
| 2. Deskribapen teknikoa | 6. <i>Beltxarga Zuria ekoetiketa</i> |  |
| 3. Fitxa teknikoa | 7. <i>Aingeru Urdina ekoetiketa</i> |  |
| 4. Segurtasun-fitxa | 8. <i>UNE-EN ISO 14006 eranskina</i> |  |
| <p><i>(*)Hauk dira baloratu beharreko zehaztapen eta irizpide bakoitza betetzen dela bermatzen duten ingurumen-ziurtagiriak eta ekoetiketak edo informazioa biltzen duten agiriak, baina bestelako ziurtapen-dokumentu baliokide batzuk ere onartuko dira, betiere argi adierazten bada betetzen direla ezarritako irizpideak.</i></p> | | |

OHARRAK:

Dokumentu honetan garatutako irizpideez gain, interesgarria izan daiteke gai hauei lotutako baldintzak ere sartzea: ibilgailuak, garbiketa-produktuak eta zerbitzu, produktu eta makinak kudeaketa.

Informazio honetan sakontzeko, eskuliburu hau kontsultatu dezakezu: Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua (2014). Euskadiko Administrazio Publikotik bere ezarpenerako eredu eta adibideak. www.ihobe.eus webgunean eskuragarri.